



NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

238. zenbakia

Asteartea, urriaren 13a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru legeak eta legegintzako foru dekretuak

- ERABAKIA. Nafarroako Parlamentuak hartutako Erabakia, 9/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzekoa. 9869
- ERABAKIA. Nafarroako Parlamentuak hartutako Erabakia, 10/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzekoa. 9869

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 2078/2020 EBAZPENA, irailaren 14koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, etxezain lanpostuan aritzeko, eta lanpostua esleitzen baitzaie. 9869
- 2098/2020 EBAZPENA, irailaren 18koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, zaintzaile gerontologiko lanpostuan aritzeko, eta lanpostua esleitzen baitzaie. 9870

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

- AKATS ZUZENKETA, deialdi hauetako gai zerrenda orokorrarena: osasun mentaleko erizain espezialista izateko eta fisioterapeuta izateko oposizio-lehiaketen deialdiak, zeinak onetsi baitziren, hurrenez hurren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 4ko 460E/2020

Ebazpenaren bidez eta abuztuaren 18ko 695E/2020 Ebazpenaren bidez.

9871

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 355E/2020 EBAZPENA, irailaren 22koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia. DDBN identifikazioa: 524880. 9871

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

- 97C/2020 EBAZPENA, irailaren 25ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, FCC Aqualia SA enpresaren lan hitzarmen kolektiboko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa erregistratu, gorde eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena, Mairagako Mankomunitateko ur hornidura eta saneamenduko instalazioen mantentze, zainketa, ustiapen, garbiketa eta konponketa zerbitzu publikoaren kudeaketarako kontratuari atxikitako langileentzat, 2018., 2019., 2020. eta 2021. (uztailaren 31ra arte) urteetarako. 9875

1.7. BESTELAKOAK

- 919E/2020 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ingurumenaren zuzendari nagusiak emana, ingurumen txosten estrategikoa egiten duena Berueten (Basaburua) turismo kanpaleku bat jartzeko Plan Bereziaren gainean; sustatzailea Iban Pascual Matelo da. 9876

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

- ARANGUREN..... 9877
- ARANGUREN..... 9877

	ORRIALDEA		ORRIALDEA
2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA		- MURILLO EL FRUTO	9882
ANTOLATUAK	9877	- IRUÑA.....	9882
- ANTZIN	9877	- GARES	9882
- ARGUEDAS	9878	- RIBAFORADA.....	9883
- AZAGRA	9878	- SAN ADRIÁN	9883
- BARAÑAIN	9878	- ZANGOZA.....	9883
- BASABURUA.....	9879	- TAFALLA.....	9883
- BERRIOBEITI	9879	- TUTERA.....	9884
- CAPARROSO	9880	- TULEBRAS.....	9884
- CASCANTE	9880	- UHARTE	9884
- OLTZA ZENDEA	9880	- ULTZAMA.....	9884
- ETULAIN.....	9880	- UTERGA.....	9884
- EZKAROZE	9880	- VALTIERRA.....	9885
- FONTELLAS.....	9881	- EBRO KIROL MANKOMUNITATEA.....	9887
- FUNES.....	9881	- NOAIN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZU- EN MANKOMUNITATEA.....	9887
- GOIZUETA.....	9881	- IZARBEIBARKO KIROL ETA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.....	9888
- IRURTZUN.....	9881	6. BESTELAKO IRAGARKIAK	9889
- LARRAGA.....	9882	6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK.....	9889
- LEGARDA.....	9882		
- MURCHANTE.....	9882		

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru legeak eta legegintzako foru dekretuak

ERABAKIA. Nafarroako Parlamentuak hartutako Erabakia, 9/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean egin-dako bileran, baliozkotu zuen 9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea. Foru Lege-dekretua argitaratu zen 2020ko irailaren 17ko 211. eta 2020ko irailaren 21eko 213. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko irailaren 24ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6 artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean.—Lehendakaria, Unai Hualde Iglesias.

F2011570

ERABAKIA. Nafarroako Parlamentuak hartutako Erabakia, 10/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean egin-dako bileran, baliozkotu zuen 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. Foru Lege-dekretua 2020ko irailaren 17ko 211. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko irailaren 24ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6 artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean.—Lehendakaria, Unai Hualde Iglesias.

F2011569

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

2078/2020 EBAZPENA, irailaren 14koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, etxezain lanpostuan aritzeko, eta lanpostua esleitzen baitaie.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren azaroaren 20ko 2782/2018 Ebazpenaren bitartez, deialdi bat onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko etxezain izateko hogeita lau lanpostu oposizio bidez betetzeko. Ebazpena 2018ko 241. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 17koan.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren martxoaren 4ko 597/2019 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi zen. Ebazpen hori 2019ko 53. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, martxoaren 18koan.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren maiatzaren 13ko 1319/2019 Ebazpenaren bidez, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi, eta oposizioaldiko ariketak egiteko eguna, tokia eta ordua finkatu ziren. Ebazpen hori 2019ko 106. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 3koan.

Hautaprobak bukatuta, baldintzak frogatzeko epea ireki zen Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 418/2020 Ebazpenaren bidez.

Ordoren, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren ekainaren 17ko 1466/2020 Ebazpenaren bidez, lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deia egin zen, eta 10 egun balioduneko epea ireki zen lanpostuak aukeratzeko.

Azkenik, kalifikazio epaimahaiak proposamena egin zuen izenda zitezen probak gairak dituzten eta deialdiko lanpostuetan sartzen diren izangaiak, deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenak, eta deialdian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea ireki zen, deialdiaren 9.2

oinarrian ezarritakoarekin bat. Proposamen hori 2020ko 176. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 10ekoan.

Proposatutako izangaien artean dago María Luz Valencia Sainz de Baranda andrea, eta hark, ezinbesteko kasua dela-eta, eskatu du berari dagokionez eten dadila epe hori, aipatu egoera bukatu arte. Eskaera hori baietsi behar da, deialdiaren 9.3 oinarrian ezarritakoaren babesean, behar bezala frogatu eta justifikatu baita ezinbesteko kasu bat dagoea.

Kontuan harturik proposatu diren gainerako izangaiak aurkeztu dutela eskatutako dokumentazioa behar zen epean, eta egiaztatu ondoren izangaiak betebeharrak betetzen dituztela, bidezkoa da izendapena egitea eta lanpostu hutsak esleitzea.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Honako hauek izendatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, etxezain lanpostuan aritzeko: Urtzi Iriarte Vázquez, Antonio Del Burgo Aldaya eta Asier Pariente Herrero jaunak, desgaitasuneko erreserba txandakoak, %33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonendakoak; José Javier Iturralde Ráquin, María Mercedes Usoz Ortiz, Ernesto Zudaire Burgui, Emilio José Fernández Sanz, José Fernández Cuesta, Juan Ramón Esparza Martín, Pablo Alastuey San Miguel, María Idoya Tolosana Bazán, Daniel Guimera García eta Laura Elorz Metauten jaun-andreak, goero txandakoak; eta José Ignacio Ferrero Moreno, Ruth Ojer Alecha, Fermín Azkona Morentin, Alberto Martín Lorea, Martín Zubiri Lora, Eneko Pascual Calvo, Gorka Izko Leatxe, Alejandro Yanguas Forcada, Rubén Plaza Notario eta Rubén Gutiérrez Lacunza jaun-andreak, txanda irekikoak.

2. Lanpostu hutsak honela esleitzea:

Urtzi Iriarte Vázquez jaunari 35731 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko ESTNA ikastetxe bateratuari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Antonio Del Burgo Aldaya jaunari 35693 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Asier Pariente Herrero jaunari 35739 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Elortzibar DBHlari atxikia, destinoa Noainen duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

José Javier Iturralde Ráquin jaunari 30753 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Hezitzaile Eskola Ibari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

María Mercedes Usoz Ortiz andreari 30026 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Plaza de la Cruz BHLari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Ernesto Zudaire Burgui jaunari 37001 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Lekaroz BHLari atxikia, destinoa Lekarozen duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Emilio José Fernández Sanz jaunari 33549 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Plaza de la Cruz BHLari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

José Fernández Cuesta jaunari 33685 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Alhama BHLari atxikia, destinoa Corellan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Juan Ramón Esparza Martín jaunari 30900 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Marques de Villena

BHlari atxikia, destinoa Martzillan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Pablo Alastuey San Miguel jaunari 33355 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Marques de Villena BHlari atxikia, destinoa Martzillan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

María Idoia Tolosana Bazán andreari 35730 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Alhama BHlari atxikia, destinoa Corellan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Daniel Guimera García jaunari 36076 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Reyno de Navarra DBHlari atxikia, destinoa Azagran duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Laura Elorz Metauten andreari 35637 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Ricardo Campano IPari eta Del Camino DBHlari atxikia, destinoa Vianan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

José Ignacio Ferrero Moreno jaunari 34882 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Ega BHlari atxikia, destinoa San Adrianen duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Ruth Ojer Alecha andreari 35830 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Biurdana BHlari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Fermín Azkona Morentin jaunari 35643 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Valle del Ebro BHlari atxikia, destinoa Tuteran duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Alberto Martín Lorea jaunari 35838 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Donapea IBPari atxikia, destinoa Iruñean duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Martín Zubiri Lora jaunari 33261 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Zizur BHlari atxikia, destinoa Zizur Nagusian duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Eneko Pascual Calvo jaunari 35682 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Lekaroz BHlari atxikia, destinoa Lekarozen duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Gorka Izko Leatxe jaunari 34090 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Torre Monreal HBIPari atxikia, destinoa Tuteran duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Alejandro Yanguas Forcada jaunari 37444 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Valle del Ebro BHlari atxikia, destinoa Tuteran duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Rubén Plaza Notario jaunari 35733 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, Hezkuntza Departamentuko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolari atxikia, destinoa Corellan duena, eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

Rubén Gutiérrez Lacunza jaunari 33379 zenbakidun lanpostu hutsa, funtzionario araubidekoa, elebiduna (euskarazko B2 jakite-maila), Hezkuntza Departamentuko Toki Ona BHlari atxikia, destinoa Beran duena,

eta baldintzatat duena epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

3. Xedatzea ezen izendatutako izangaiek kasuan kasuko ikastetxeko langileen unitatean jabetu beharko dutela lanpostuaz, hilabeteko epean, izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, kontuan izanik argitaratze horrek jakinaraztearen ondorio berberak izanen dituela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa kontuan harturik.

Aipatutako epean ez baldin badute lanpostuaren jabetza hartzen, behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izateko eskubide guztiak galduko dituzte.

4. Adieraztea ezen Rubén Gutiérrez Lacunza jaunak euskarazko jakite-maila zehaztuta duten lanpostu elebidunak betetzeko prozesuetan besterik ezin izanen duela parte hartu, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 33.2 artikulua ezartzen duen moduan.

5. Epea etetea izendatua izateko proposatu den María Luz Valencia Sainz de Baranda andrea izangaiarentzat, hark frogatutako ezinbesteko egoera bukatzen den arte, bat etorri deialdiaren 9.3 oinarrian ezarritakoarekin.

6. Ebazpen hau igortzea Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketako Zerbitzura, Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzura, Egituraren, Lanpostuen Antolaketaren eta Langileen Plantillaren Zerbitzura eta Gizarte Prestazioen Zerbitzura, eta interesdunei jakinaraztea. Interesdunei aditzera ematen zaie ezen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

7. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an.–Funtzio Publikoko zuzendari nagusia, Amaia Goñi Lacabe.

F2010834

2098/2020 EBAZPENA, irailaren 18koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, zaintzaile gerontologiko lanpostuan aritzeko, eta lanpostua esleitzen baitzaie.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren martxoaren 4ko 580/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdi bat onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko zaintzaile gerontologiko izateko hogeitau lanpostu oposizio bidez betetzeko. Ebazpena 2019ko 63. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 2koan.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren maiatzaren 13ko 1318/2019 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi zen. Ebazpen hori 2019ko 106. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 3koan.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren abuztuaren 5eko 2210/2019 Ebazpenaren bidez, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi, eta oposizioaldiko lehenbiziko ariketa egiteko eguna, tokia eta ordua finkatu ziren. Ebazpen hori 2019ko 164. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 22koan.

Hautaprobak bukatuta, baldintzak frogatzeko epea ireki zen Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 22ko 176/2020 Ebazpenaren bidez.

Ondoren, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren martxoaren 23ko 860/2020 Ebazpenaren bidez, lanpostu hutsak aukeratzeko ekitaldirako deia egon zen, eta 10 egun balioduneko epea ireki zen lanpostuak aukeratzeko.

Azkenik, kalifikazio epaimahaiak proposamena egin zuen izenda zitezela probak gainditu dituzten eta deialdiko lanpostuetan sartzen diren izangaiak, deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenak. Proposamen hori 2020ko 170. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 3koan.

Eskatutako dokumentazioa behar zen epean aurkezturik eta proposatutako izangaiek betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuz, bidezkoa da izendapena egitea eta lanpostu hutsa esleitzea.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Honako hauek izendatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, zaintzaile gerontologiko lanpostuan aritzeko: Víctor Antonio Tellechea Arrubla jauna, desgaitasuneko erreserba txandakoa, 100eko 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako; Purificación Camacho Rayo, Nuria Ortiz Claraco, Idoia García Benito, Inés Zazpe Torrea eta Yolanda Albisu Cajal andreak, igoera txandakoa; eta Rosa María Muñoz Irañeta, Virginia Zabalza Amatriain, Raquel García Martín, Marina Górriz López de Dicastillo, Ana Isabel Cabodevilla Ilincheta, María Cristina Roteta Ibarra, Victoria Eugenia Recalde Baigorri, Julia Guillén Guillén, Miriam Gofí Barber, Elena Platel Zarzoso, María Victoria Ezquerria Mendivil, María Nieves García Cortés, Pablo Bueno Urricelqui eta Sonia Santafé Dencausa jaun-andreak, txanda irekikoak.

2. Lanpostu hutsak honela esleitzea:

Víctor Antonio Tellechea Arrubla jaunari, 3045 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Purificación Camacho Rayo andreari 3101 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Nuria Ortiz Claraco andreari 3035 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Idoia García Benito andreari, 3138 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Inés Zazpe Torrea andreari 3158 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Yolanda Albisu Cajal andreari 10515 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Rosa María Muñoz Irañeta andreari, 7979 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Virginia Zabalza Amatriain andreari 3172 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Raquel García Martín andreari, 3186 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Marina Górriz López de Dicastillo andreari, 8139 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

Ana Isabel Cabodevilla Ilincheta andreari 10516 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren El Vergel zahar etxeari atxikia, eta destinoa Iruñean duena.

María Cristina Roteta Ibarra andreari, 8725 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Victoria Eugenia Recalde Baigorri andreari, 3059 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Julia Guillén Guillén andreari, 3182 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Miriam Gofí Barber andreari, 6569 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Elena Platel Zarzoso andreari, 6570 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

María Victoria Ezquerria Mendivil andreari, 8726 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

María Nieves García Cortés andreari, 8724 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Pablo Bueno Urricelqui jaunari, 8729 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

Sonia Santafé Dencausa andreari, 4651 lanpostu hutsa, funtzionarioen araubidekoa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Santo Domingo zahar etxeari atxikia, eta destinoa Lizarran duena.

3. Xedatzea ezen izendatutako izangaiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Langileen Unitatean jabetu beharko dutela lanpostuaz (González Tablas kalea 7, Iruña), hilabeteko epean, izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, kontuan izanik argitaratze horrek jakinaraztearen ondorio berberak izanzen dituela, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako epean ez baldin badute lanpostuaren jabetza hartzen, behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izateko eskubide guztiak galduko dituzte.

4. Ebazpen hau igortzea Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Kudeaketaren eta Baliabideen Zuzendariordeztzara eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketako Zerbitzura, Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzura, Egituraren, Lanpostuen Antolaketaren eta Langileen Plantillaren Zerbitzura eta Gizarte Prestazioen Zerbitzura, eta interesdunei jakinaraztea. Interesdunei aditzera ematen zaie ezen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dutela, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

5. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an.—Funtzio Publikoko zuzendari nagusia, Amaia Gofí Lacabe.

F2010833

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

AKATS ZUZENKETA, deialdi hauetako gai zerrenda orokorrarena: osasun mentaleko erizain espezialista izateko eta fisioterapeuta izateko oposizio-lehiaketen deialdiak, zeinak onetsi baitziren, hurrenez hurren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 4ko 460E/2020 Ebazpenaren bidez eta abuztuaren 18ko 695E/2020 Ebazpenaren bidez.

Akats bat atzeman da I. eranskinean (Gai zerrenda - Gai orokorrak). Hortaz,

Honako hau dioen tokian:

“... 8/2017 Foru Legea, ekainaren 29koa, Nafarroako LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa: ...”.

Honako hau behar du:

“... 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, Nafarroako LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa: ...”.

Iruñean, 2020ko irailaren 23an.—Kargua bete gabe dagoenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Eriari Osasun Laguntza Emateko zuzendaria (irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretua), Francisco Javier Apezteguía Urroz.

F2011073

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

355E/2020 EBAZPENEA, irailaren 22koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia. DDBN identifikazioa: 524880.

Artisautza sektorearen berezitasuna kontuan izanda, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren ustez ezinbestekoa da sektoreko enpresak bultzatzen jarraitzea eta, helburu horrekin, zenbait laguntza-neurri hartzea enpresa horien garapena indartzeko, merkataritza sustatzen duten jarduketak bultzatzeko eta lanbide trebakuntza hobetzeko,

eta, horiez gain, neurri berariazko batzuk hartzea egungo osasun krisiak eta krisi ekonomikoak sektorean dituen ondorioak leuntzeko.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak zehazten dira portzentaje batzuk aplikatuz jarduketara diruz lagungarrietan egindako gastuari, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera. Aurrekontuan dagoen dirua ez bada aski portzentaje horren ondoriozko dirulaguntzen gutzirakoa ordaintzeko, deialdiaren konpromisoa erantzuteko baimendutako gastua hainbanatu egingen da gastu diruz lagungarrien bolumenaren artean.

Hori dela eta, 2020ko abuztuaren 26an egindako bilkuran, azalpenak eman zitzaizkien Nafarroako Artisautearen Aholku Kontseiluko kide diren artisautea elkarteak, eta haien iritzia entzun zen.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz.

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako artisautea enpresak sustatzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia onestea.

2. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea. Ebazpen honen eranskinean jaso dira.

3. 55.000 euroko gastua baimentzea dirulaguntza deialdi honen ondoriozko konpromisoak betetzeko; 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partida honen kargura finantzatzeko da: 830001-83130-4701-431402, "Artisautezako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak. Nafarroako artisautea sustatzea eta horretan trebatzea".

4. Ebazpen hau eta beronen eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Deialdiaren eta oinarri arautzaileen kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztzen ahalko zaio Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Irufean, 2020ko irailaren 22an. –Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusia. Maitena Ezkutari Artieda.

ERANSKINA

Nafarroako artisautea enpresak sustatzeko dirulaguntzen 2020ko deialdiaren oinarri arautzaileak

1. oinarria. Xedea.

Nafarroako artisautea enpresei dirulaguntzak emateko araubidea zehaztea dute xede oinarri arautzaile hauek, haien lehiakortasuna bultzatzearren, haien produktuak merkaturatu eta sustatzeko jarduerak bultzatuz, bai eta haien langileen prestakuntza maila hobetzen duten jarduerak ere, haiek garatu eta indartze aldera.

Dirulaguntzen onura publikoa artisautea enpresak eta horien produktuak sustatzean datza, horrela sektorea dinamizatze eta indarberritzeko; izan ere, beharrezkoa da artisautea bizirik mantentzea eta hura dinamizatzea, gizarte kulturali aberastu baitu, eta Nafarroako ondare immaterialaren zati garrantzitsu bat osatzen baitu. Gainera, artisauteari aitortzea egitea ere sustatzen da, artisauteak berekin baitakar tradizioa, kalitatea, diseinua eta benetakoak, bakarrak eta jatorrizkoak diren produktuak eskuz egitea, industrialki, seriean edo mekanikoki egindako produktuen aldean.

Halaber, enpresa hauek aurrera ateratzeko zailtasun handia dute COVID-19ak osasunean, gizartearen eta ekonomian eragin duen krisi egoera honetan, eta, sortzen dituzten produktuen berezitasuna ikusirik, laguntza hauen bidez lortu nahi da enpresa horien iraupena indartzea eta artisautezako lanbiderik ez gaitzea.

2. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura.

55.000 euroko kreditua baimendu da deialdi honen ondoriozko konpromisoa aurre egiteko.

3. oinarria. Jarduketak gauzatzeko epea.

Diruz lagungarritzat joko dira 2019ko azaroaren 12tik 2020ko azaroaren 16ra bitartean egin eta fakturatzen diren gastuak (bi egun horiek barne). Ondorio horietarako, ulertuko da gastuak egin direla epe horren barruan fakturatu eta ordaindu direnean.

4. oinarria. Enpresa onuradunak.

1. Betebehar orokor hauek betetzen dituzten enpresa txiki eta ertainek jasotzen ahalko dituzte laguntzak:

1.1. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku egoeretatik batean.

Dirulaguntza eskatzeak berekin dakar baimena ematea organo emailek zuzenean eskuratu ditzen behar diren ziurtagiri telematikoak, frogatzen dutenak eskatzaileak egunean dituela tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskabidean interesdunak horri berariaz uko egiten badio, berak aurkeztu beharko ditu aipatutako betebeharrak egunean dagoela adierazten duten ziurtagiriak.

1.2. Inolako administrazio zehapen irmorik edo kondena epai irmorik betetzen ez egotea sexu edo genero diskriminaziotzat hartutako lan praktikak egiteagatik edo onartzeagatik, eta ez egotea arrazoi horiek direla-eta ezarritako epai edo zehapen bat betetzeko zain.

1.3. Pertsona fisiko edo juridikoen elkarte bat eratzen duten eskatzaileek edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko egoeraren batean daudenek ordezkari bat edo ahalidun bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkien betebeharrak betetzeko adinako ahalmena duena.

Kasu horietan, berariaz adieraziko dira dirulaguntzaren eskabidean zer konpromiso hartzen dituen bere gain batasuneko kide bakoitzak. Halaber, laguntza ematen duen ebazpenean adieraziko da kide bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Kideok ere onuraduntzat joko dira.

Gainera, berariazko beharkizun hauek bete beharko dituzte:

1.4. Nafarroako Artisautea Enpresen Erregistroan izena emanda egotea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik. Erregistro hori Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari atxikirik dago.

1.5. Dirulaguntzaren eskaera aurkeztzen den egunean Nafarroako artisautea enpresa bat dela egiaztatzen duen txartela indarrean izatea. Artisautea enpresa izateko eskatzen diren betebeharrak, betiere, bete beharko dira deialdiaren arabera diruz lagungarriak diren jarduerak egiteko ezarritako epe osoan. Horrenbestez, onartuko dira soilik artisautea enpresek betebeharrak horiek betetzen dituzten epean eta aipatu txartela indarrean dutenean egiten dituzten jarduerak.

1.6. Hala badagokio, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik aurkeztu izana artisautea enpresaren izaera berritzeko eskabidea.

2. Eskabidean dagoen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez frogatuko da eskatutako baldintza orokorrak betetzen direla, eta laguntzak kudeatzen dituen organoak ziurtatuko du berariazko baldintzak betetzen direla.

5. oinarria. Jarduketa diruz lagungarriak eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Jarduketa diruz lagungarri motak.

Honako jarduketa hauek dira diruz lagungarriak:

- Azoka, erakusketa eta antzeko ekitaldietan parte hartzea.
- Sustapen eta publizitateko jarduketak.
- Lanbide hobekuntzako prestakuntza-ikastaro berariazkoetara edo gaitasun digitalen gaineko ikastaroetara joatea.
- Lokalak alokatzea artisautea tailerra jartzeko.
- Online salmentarako plataformetara edo market place plataformetara atxikitzeak.
- Produktua egiteko behar diren lehengaiak edo materialak eskuratzeko.

2. Jarduketa mota bakoitzaren arabera diruz lagungarriak diren gastuak:

- Azoka, erakusketa eta antzeko ekitaldietan parte hartzea.

a.1) Honako hauek dira gastu diruz lagungarriak:

–Inskripzio gastuak, tokiaren eta standaren alokairua.

–Standa muntatu, apaindu edo instalatzeko gastuak. Erakustoki, saltoki edo standetan erabilitako olana, eguzki-oihal, binil edo antzekoak inprimatu eta errotulatzeko gastuak diruz lagungarriak izanen dira; zehazki, diseinuari, produkzioari eta inprimatze prozesuei edo antzekoei buruzko gastuak onartuko dira, bai eta lan horiek egiteko euskarria edo materiala erostekoak ere.

–Materiala norberaren ibilgailuan garraiatzea: diruz lagungarritzat joko da kilometro bakoitzarengatik 0,33 euro aplikatu ondoren lortzen den zenbatekoa, materiala eraman eta ekartzeagatik; bidesariaren gastuak ere onartuko dira. Kilometro kopurua kalkulatzeko, Google Maps aplikazioa erabiliko da, eta kontuan hartuko da zer distantzia dagoen enpresa eskatzailearen artisautea tailerretik azoka egingen den herrira.

–Materiala beste moduren batean garraiatzea: diruz lagungarritzat onartzen da erabilitako garraiobidearen gastua edo alokatutako ibilgailu-arena, erregeiaren eta bidesariaren gastuak barne.

–Azoketan parte hartzeko egiten diren mantenu eta ostatu gastuak eta bestelako bidaia-gastuak ordaintzeko, 5. oinarrian ezartzen diren ordainak aplikatuko dira.

a.2) Jarduketa diruz lagungarriek bete beharrekoa eta hori ez betetzearen ondorioak.

–Artisautea enpresak jarduketa horietan parte hartuko du bere artisautea tailerrean egindako produktu propioekin soilik, eta inola ere ez du birsalmentarik egingen.

Dirulaguntza zer azokatarako eskatzen den, deialdia kudeatzen duen organoak eskubidea du informazioa eskatzeko horien antolatzaile den edozein erakunderi, ziurtatze aldera lehen aipatu den baldintza betetzen

dela. Betetzen ez bada, kasuan kasuko azokari dagozkion gastu guztiak ezetsiko dira.

b) Sustapen eta publizitateko jarduketak.

Honako jarduketak hauek izanen dira diruz lagungarriak:

b.1) Sustapenerako materiala argitaratzea.

–Artisautza enpresak prestatutako produktuak aurkezteko edo artisauen lanbidea hedatzeko katalogoak, triptikoak, flyerrak eta ikus-entzunezkoak prestatzea. Diseinuari, konposizioari edo/eta maketazioari, banaketari eta produkzioari buruzko gastuak izanen dira diruz lagungarriak.

–Publizitate tarteak komunikabide eta hedabideetan, artisautza enpresa bultzatu, hedatu eta ezagutzera emateko. Publizitate tarte horiek diseinatu, ekoiztu eta xertatzeko gastuak izanen dira diruz lagungarriak.

–Argazkigintza lanak, artisautza tailerrei edo artisautza enpresaren lanari buruzkoak, dibulgaziorako edo sustapenerako egiten direnak.

b.2) Marketin digitaleko ekintzak: publizitatea sare sozialetan, bilatzailetan (SEM) edo edukien marketina.

b.3) Jarduketa diruz lagungarriek bete beharrekoak:

–Kanpoan uzten dira artisautzako produktuak, lanbideari edo enpresari buruzkoak ez diren dibulgazio, propaganda edo publizitateko material eta iragarki guztiak.

–Ez dira diruz lagungarriak produktuak saltzeko edo erakusteko beharrezkoak diren bilgarri, kaxa, kutxatila edo antzekoak erosteko gastuak, ez eta bisita txartelen edo antzekoen diseinuari eta produkzioari buruzkoak ere.

–Sortutako euskarri eta iragarki guztietan (sare sozialetan agertzen direnak barne), Nafarroako Gobernuaren logotipo ofiziala agertu beharko da, edo, bestela, Nafarroako turismoaren marka edo honako esaldi hau: “Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa”. Hori betetzen ez bada, publizitate euskarri horiei dagozkien gastu guztiak ezetsiko dira.

c) Berariazko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea.

c.1) Diruz lagungarritzat jotzen dira honako ikastaro hauetara joateko egiten diren gastuak (izan online ikastaroak nahiz presentzialak):

–Prestakuntza eta trebakuntza teknikoko ikastaroak, Nafarroako artisautzako lanbideen errepertorioan aipatzen diren lanbideetako baten hobekuntza profesionala helburu dutenak; baimendutako zentro ofizialek edo horretarako kualifikatutako enpresa edo profesionalak antolatu edo eman beharko dituzte, eta lagundu beharko dute artisau lanetan aritzeko lanbide gaitasunak hobetzen.

–Gaituntza digitalerako prestakuntza-ikastaroak, beharrezkoak direnak informazioaren eta komunikazioaren teknologiako tresna berriak erabiltzeko; esaterako, xede dutenak sare sozialak erabiltzea, online salmenta edo online marketina egitea, etab.

c.2) Honako hauek dira gastu diruz lagungarriak:

–Gastu akademikoak, matrikularenak eta ikastaroak egiteko behar den material didaktikoari dagozkionak.

–Ikastaroetan parte hartzen duen pertsonaren joan-etorrien gastuak; ondorio horietarako, aplikatuko da oinarri honetan ezartzen dena materiala artisautza azoketara garraiatzeko dagokionez.

–Parte-hartzailearen mantenu eta ostatu gastuak eta ikastaroetara joateko beharrezkoak diren bestelako bidaia-gastuak; ondorio horietarako, aplikatuko dira 5. oinarrian ezartzen diren ordainak, azoketan parte hartzearen ondoriozkoak.

d) Lokalak alokatzea artisautza tailerra jartzeko.

Diruz lagungarritzat jotzen da artisautza tailerrak hartzen dituzten lokalak eta instalazioak errentan hartzea, baldin eta jarduera hor egiten bada 2020ko martxotik 2020ko urria bitarteko hilabeteetan, biak barne, eta baldintza hauek betetzen badira:

–Artisau tailerrak egon behar du etxebizitza partikularra ez den higiezin batean.

–Lokalaren erabilera ez da izanen etxebizitzarako, Nafarroako Gobernu Lur-ondasunen Zerbitzuan dauden datuen arabera.

–Lokala errentan hartzeko kontratu bat izan behar da, artisautza enpresaren izenean.

e) Online salmentarako plataformetara, market place plataformetara edo antzekoetara atxikitze kuotak.

Diruz lagungarritzat hartzen dira online salmentarako plataformetara (ecommerce) atxikitze kuotak, baita market place plataformetara edo online salmentarako beste kanal batzuetara atxikitze kuotak, horien bidez artisautza enpresak espazio bat izan dezan bere produktuak ikusgai jartzeko, horiek erakustea errazteko eta salmenta prozesua azkartzeko.

f) Produktua egiteko behar diren lehengaiak eta bestelako materialak eskuratzea.

Diruz lagungarritzat jotzen da lehengaiak eta beste gai kontsumigarri batzuk erostea produktua prestatzeko prozesuan erabiltzeko, baldin eta erosten badira deialdi honetan diruz lagungarritzat ezartzen den gastu-aldian.

2.500 euroko dirulaguntza emanen da gehienez, edo enpresak 2019an kontzeptu horientatik egindako erosketen zenbatekoa, 2.500 eurotik gorakoa bada; kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eta hartan adieraziko dira fakturak, zenbatekoak, kontzeptuak eta 2019an zer hornitzailei egin zitzaizkien erosketak.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

a) Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ondotik zehazten diren portzentajeak aplikatu behar dira gastu diruz lagungarriaren gainean (BEza kanpo), gehieneko zenbateko hauekin, jarduketa diruz lagungarri bakoitzeko:

JARDUKETA DIRUZ LAGUNGARRIEN MOTAK	DIRULAGUNTZA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENOKO ZENBATEKOA
a) Azoka, erakusketa eta antzeko ekitaldietan parte hartzea	Hurrengo b) apartatuarekin bat	6.000
b) Sustapen eta publizitate jarduketak	%80	2.500
c) Lanbide hobekuntzako prestakuntza-ikastaro berariazkoetara edo gaitasun digitalen gaineko ikastaroetara joatea	%80	2.500
d) Lokalak alokatzea artisautza tailerra jartzeko	%50	1.600
e) Online salmentarako plataformetara edo market place plataformetara atxikitze kuotak	%80	1.000
f) Produktua egiteko behar diren lehengaiak edo materialak eskuratzea	%50	2.500

b) “Azoka, erakusketa eta antzeko ekitaldietan parte hartzea” kontzeptuarengatik dirulaguntza honela esleituiko zaio azoka bakoitzari:

GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK	DIRULAGUNTZA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENOKO ZENBATEKOA
Inskripzio gastuak, tokiaren eta standaren alokairua	%80	1.800 euro azoka bakoitzeko
Standa muntatu, apaindu edo instalatzeko gastuak		
Materiala garraiatzea norberaren ibilgailuan		
Materiala garraiatzea beste bide batzuk erabiliz		
Ordaina estatuko azoketara joateagatik	40 euro azoka egun bakoitzeko	200 euro azoka bakoitzeko
Ordaina nazioarteko azoketara joateagatik	55 euro azoka egun bakoitzeko	275 euro azoka bakoitzeko

c) Gehieneko dirulaguntza 8.000 eurokoa izanen da enpresa bakoitzeko.

6. oinarria. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

1. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Eskaerak aurkezteko modua.

a) Pertsona juridikoen kasuan eta pertsona fisikoen edo juridikoen elkarleen kasuan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetako batean.

Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira nahitaez, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atariaren tramiteen katalogoko fitxa erabiliz: https://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Comercio+y+arte-sania/ (hemendik aitzina, laguntzaren fitxa). Fitxa horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari Erregistro Orokor Elektronikoko sartzeko esteka bat izanen da.

Eskaera aurrez aurre aurkeztu bada, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko eta baliabide telematikoen bidez aurkezteko. Ondorio horietarako, eskaeraren aurkezpen eguna zuzenketaren eguna dela ulertuko da.

b) Pertsona fisikoen kasuan.

Ahal dela, eskaerak modu telematikoa aurkeztuko dira, a) letran adierazitakoari jarraituz, edo, hala ez bada, aurrez aurre Iruñeko Navarrerria kaleko 39an dagoen Erregistro Bulegoan, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste erregistroetako edozein erabiliz.

3. Eskaerak laguntzaren fitxan ageri den berariazko inprimakia erabiliz egiten dira, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta.

4. Laguntzak eskatzeko behar diren agiriak.

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira (eskaera telematikoa bada, dokumentu bereizitan eskaneaturik eta behar bezala identifikaturik):

4.1. Enpresa eskatzailearen gaineko dokumentazioa.

Eskabide ereduak honako adierazpen hauek ditu:

a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, frogatzeko 4.1 oinarrian eskatutako baldintza orokorrak betetzen direla.

b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, jasotako beste dirulaguntza batzuei eta de minimis laguntzei buruzkoa (12. oinarrian aipatzen dira).

c) Transferentzia bidez kobratzeko eskabidea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari zuzendua (Diruzaintza Atala), enpresa eskatzaileak lehenbizikoz kobratzen baditu laguntzak, edo abonatzeko kontua aldatu nahi izanez gero.

4.2. Jarduketa diruz lagungarriei buruzko dokumentazioa.

4.2.1. 2019ko azaroaren 12tik eskaera aurkeztu den egunera bitarte egindako jardueren kasuan, dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Azoka edo erakusketetan parte hartzea: Memoria bat horietako bakoitzeko, laguntzen fitxako eredu berariazkoan eskatzen den informazioa jasoko duena.

a.1) Dirulaguntza eskatzen bada azoka edo erakusketetan parte hartzeagatik, baina, bakar-bakarrik, materiala garraiatzeagatik, aurkeztu den dokumentazioan behar bezala frogatu beharko da artisautza enpresak ekitaldian parte hartzen duela; besteak beste, honako hauek aurkeztuko dira: antolatzailearen ziurtagiria, publizitate-iragarkien kopia, azokako liburuxkak edo katalogoak edo antzeko dokumentazioa.

a.2) Standak muntatzeko edo apaintzeko erabilitako olana, eguzki-oihal, binilo edo antzekoak inprimatzeko dirulaguntzen kasuan, lehenik, standaren eta olanen, eguzki-oihalen edo publizitate euskarrien argazkiak aurkeztu behar dira, horien bitartez egiaztatzeko ea bete den jarduketak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso duela jakinarazteko betebeharra.

b) Sustapen eta publizitate jarduketak: Memoria bat horietako bakoitzeko, laguntzen fitxako eredu berariazkoan eskatzen den informazioa jasoko duena.

Horrez gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

–Sustapenerako argitaratutako katalogoen, eskuorrien, triptikoen, flyerren, ikus-entzunezkoen, irratiko iragarkien, argazkigintzako lanen edo beste edozein materialen ale bat.

–Publizitate-bideetan eta komunikabide eta hedabideetan iragarkirik egin bada, iragarkiaren kopia eta hedabidearen azalarena aurkeztuko dira.

–Sare sozialetan publizitatea edo iragarkiak hedatu badira, horien pantaila-argazkiak edo estekak aurkeztu beharko dira.

c) Prestakuntza jarduerak: Memoria bat horietako bakoitzeko, laguntzen fitxako eredu berariazkoan eskatzen den informazioa jasoko duena.

d) Artisautza tailerren alokairua: Artisautza tailerra hartzen duen lokala errentan hartzeko kontratua, non agertuko baita artisautza enpresa dela errentaria.

e) Online salmentarako plataformetara edo market place plataformetara atxikitzeko kuotak: Mota honetako jarduketei buruzko memoria bat, laguntzen fitxako eredu berariazkoaren arabera.

f) Produktua egiteko behar diren lehengaiak edo materialak eskuratzeari: Kasua bada, erantzukizunpeko adierazpen bat, non adieraziko baitira fakturak, zenbatekoak, kontzeptuak eta zer hornitzaileari egin zitzaizkien erosketak 2019an kontzeptu horietatik, laguntzaren fitxan dagoen ereduaren arabera, edo, bestela, justifikazio bat, azaltzeko zergatik ez den lehengairik erosi aldi horretan.

g) Egindako gastuei dagozkien fakturen kopia; fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera izan behar duen fakturak, eta, betiere, dirulaguntzaren onuradun den enpresaren izenean jaulki beharko dira.

h) Bankuko frogagiriak, egindako gastuak ordaindu direla diotenak.

Ordainketa enpresa onuradunak egin du, banku bidezko transferentzia, bankuaren ordainagiria edo enpresaren kreditu edo zordunketa txartela erabiliz. Ordainagiritzat hartuko da finantza entitateak egin eta enpresaren kontuan zordundutakoa. Faktura bakoitza bere ordainketa-iragarkia egon duen da, eta faktura guztiek behar bezala ordenatuak egon beharko dute.

Espediente bakoitzeko, 500 euro arte (BEZa barne) eskudirutan ordaintzea onartuko da, betiere, hornitzaileek sinatu eta zigilatutako hartu-agiriak aurkeztu baditu enpresa onuradunak, non fakturaren zenbakia, ordainketa eta data zehaztuko baitira (sinaduraren azpian, sinatzailearen izena eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia jarriko dira), edo hornitzailearen banku-kontu batean egindako eskudiruzko sarrera justifikatzen bada.

i) Adierazpen bat, dirulaguntzaren xedeko jardueren finantzaketari buruzkoa: adierazi behar dira, dirulaguntza honetaz gain, jarduketak finantzatu dituzten beste funts batzuen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa (funts

berekiak, bestelako baliabideak edo bestelako dirulaguntzak). Adierazpen hori justifikazio inprimakian berean egingen da.

j) Gastu diruz lagungarria 30.000 eurotik gorakoa bada, obra gauzatzeko kostuaren kasuan, edo 12.000 eurotik gorakoa, ekipa-ondasunak hornitzeko edo zerbitzuak emateko kasuetan, eskatzaileak frogatu beharko du hornitzailea efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu duela, gutxienez hiru eskaintza aurkeztuz eta hautatutakoa aukeratzeko arrazoiak emanez, eskabide orriko "Hornitzailearen aukeraketaren justifikazioa" atalean.

Eskatzaileak ez dira beharturik egon hiru eskaintzak aurkezteara, baldin eta dirulaguntzaren xedeko gastuen ezaugarri bereziengatik merkaturatu behar adina entitate hornitzaile edo zerbitzu-emale ez badaude edo dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada gastua. Edonola ere, alderdi horiek aipatu inprimakian frogatu beharko dira.

Eskaintza merkeena hautatzen ez bada, eta, laguntza kudeatzen duen organoaren ustez, justifikazioa nahikoa ez bada, eskaintza merkeenaren zenbatekoa baizik ez da diruz lagunduko.

4.2.2. Eskaera aurkeztu eta biharamunetik 2020ko azaroaren 16ra arte egin gogo diren jardueretarako, dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Deskripzio-memoria xehatu bat, egin beharreko jarduerak jasotzen dituen, laguntzaren fitxan dagoen ereduaren arabera. Aurreikusitako gastuen zerrenda xehatua bilduko du.

b) Aurrekontuak edo proformako fakturak, egin beharreko jarduketarako; ez dira inoiz onartuko eskatzailearen uste edo balorazioetan oinarritzen diren gastu zenbatespenak. Zehazki, azoketan parte hartzeak dakarren gastuaren aurreikuspena baloratzeko, antolatzaileen berrespena aurkeztu beharko da.

5. Eskaerak betebeharrak horiek betetzen ez baditu edo osorik ez bada, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela eta espedientea artxibatzeko ebazpena emanen dela.

7. oinarria. Laguntzak emateko prozedura.

1. Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak du eskumena dirulaguntza emateko prozeduraren antolamendua eta instrukzioa kudeatzeko. Hark ebaluatuko ditu eskaerak, eta, hurrengo puntuan adierazitakoari jarraikiz, organo eskudunari ebazpen proposamena igorriko dio, non adieraziko baita onuradunak betetzen dituztela dirulaguntza lortzeko betebeharrak guztiak.

2. Azkenean onartzen diren eskaerei dagokien dirulaguntza honela emanen da:

a) Jarduera diruz lagungarriei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da 5. oinarrian ezarritako gehieneko zenbatekoen eta portzentajeen arabera.

b) Aurrekontuan erabilgarri dagoen diru kopurua txikiagoa bada aurreko puntuan zehaztutakoaren ondoriozko dirulaguntzen batura baino, deialdiaren konpromisoak betetzeko baimendutako gastua hainbanatu egingen da diruz lagungarritzat jotzen den gastuaren bolumenaren artean.

3. Dirulaguntzak emateari buruz ebazteko eskumena Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiari dagokio.

Ebazpenak honako hau jasoko du, gutxienez:

a) Enpresa onuradunaren zerrenda eta jarduketa mota bakoitzeko laguntzaren kopurua.

b) Ezetsi beharreko eskaeren zerrenda, arrazoiak emanda.

4. Ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Ezarritako gehieneko epea bukatzen bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, ulertzen ahalko da eskaerak administrazio isiltasunez ezetsi direla. Hala ere, organo eskuduna behartua dago laguntzak eman edo ukatzeko berariazko ebazpena ematera eta jakinaraztera, oinarri hauetan xedatutakoari jarraikiz.

5. Diruz laguntzen ahal den jarduketa mota bakoitzaren barnean onartutako jarduera multzoarengatik emanen eta ordainduko zaio dirulaguntza eskatzaile bakoitzari. Jarduera horiek 5. oinarrian daude zehaztuta.

6. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenen aurka, berariazkoak izan edo presuntziozkoak, entitate eskatzaileek zilegi izanzen dute gora jotzeko errekursoa jartzea, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari zuzendua, administrazio prozedura erkideari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz.

8. oinarria. Jarduketan justifikazioa.

1. Justifikazioa aurkezteko epea.

Egindako jarduketan justifikazioa epe hauetan aurkeztuko da:

a) 2019ko azaroaren 12tik eskaera aurkeztu den egunera bitarte egindako jardueren kasuan, dirulaguntza-eskaerarekin batera aurkeztuko da justifikazioa.

b) Eskaera aurkeztu eta biharamunetik hasita 2020ko azaroaren 16ra arte egindako jardueren kasuan, 2020ko azaroaren 16a bera izanen da justifikazioa aurkezteko azken eguna.

2. Justifikazioa aurkezteko modua.

Justifikazioa 6. oinarrian aurreikusitako moduan aurkeztuko da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta.

Modu telematikoan aurkeztuz gero, laguntzaren fitxa erabiliko da; fitxa horretan esteka bat izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzen justifikaziorako erregistrora joateko.

3. Egindako jarduketak frogatzeko dokumentazioa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira, eta, bide telematikoak erabiliz gero, eskaneatuta, bereizita eta behar bezala identifikatuta egonen dira:

a) 2019ko azaroaren 12tik eskaera aurkeztu den egunera bitarte egindako jardueren kasuan, eskaeraren inprimakia aurkeztuko da 6.4.2 oinarrian ezarritako dokumentazioarekin batera.

b) Eskaera aurkeztu eta biharamunetik 2020ko azaroaren 16ra arte egindako jardueren kasuan, justifikazioaren inprimakia aurkeztuko da 6.4.2 atalean ezarritako dokumentazioarekin batera.

9. oinarria. Dirulaguntzaren ordainketa.

1. Frogagiriak aztertuta, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak ordainketa egiteko ebazpenaren proposamena igorriko dio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari, eta, horrekin batera, onuradunek dirulaguntza kobratzeko eskubidea ematen duten betebeharrak guztiak betetzen dituztela frogatzen duen txostena.

2. Dirulaguntzak epe hauetan ordainduko dira:

a) 2019ko azaroaren 12tik eskabidea aurkeztu arte egindako jardueren kasuan, hura aurkeztearekin batera justifikatzen baitira, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazi ondoren eginen da ordainketa.

b) Eskaera aurkeztu eta biharamunetik 2020ko azaroaren 16ra arte egiten diren jardueren kasuan, behar diren frogagiriak aztertu ondoren eginen da ordainketa.

3. Nolanahi ere, 2020ko abenduaren 31 baino lehenago emanen dira ordaintzeko ebazpenak.

10. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak.

Dirulaguntzak hartzen dituzten enpresek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Dirulaguntzaren esleipena jakinarazten zaienetik hilabete pasatu baino lehen dirulaguntzen onuradunen gardentasun betebeharrari buruzko aitorpena aurkeztea (aitorpen hori irailaren 11ko 59/2013 Dekretuak arautzen du).

Foru dekretu horren 4. artikuluan eskatzen den informazioa aurkeztu ezean, ezin izanen da ordaindu onartutako dirulaguntza.

b) Diruz lagundutako jarduketak deialdian ezarritako epeetan egin, justifikatu eta ordaintzea.

c) Laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraztea emandako dirulaguntzari uko egiten zaiola, baldin eta diruz lagundutako jarduketa ez bada gauzatu behar diruz lagundutako aldiaren.

d) Publizitatean behar bezala adieraztea dirulaguntza honen xede diren jardueren finantzaketa publikoa dela; hortaz, dirulaguntzaren xede den euskarri orotan Nafarroako Gobernuaren logotipo ofiziala agertuko da, edo, bestela, Nafarroako turismoaren marka edo honako esaldi hau: "Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa".

e) Ez da erabiliko emakumeak diskriminatzen duen irudirik jarduketan, publizitate euskarrietan eta diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko materialetan; emakumeen eta gizonen berdintasuna eta rolen pluraltasuna sustatuko da, eta hizkera inklusiboa erabiliko da. Halaber, hizkera sexista erabiltzea saihestuko da diruz lagundutako jardueraren gainean prestatzen den dokumentazio guztian.

f) Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrak betetzea.

2. Oinarri arautzaile hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen ezarritako betebeharren bat bete ezean, onartutako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzen ahalko da edo, kasua bada, diru hori itzuli egin beharko da, foru lege horren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Halaber, aurreko betebeharrak bat baino batean betetzen ez bada, ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa berriro ere zehazten ahalko da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz, edo, zein den kasua, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Zehazki:

a) Egindako jarduketan justifikazioa aurkeztu bada 2020ko azaroaren 16tik aurrera (egun hori barne):

–2020ko azaroaren 24a baino lehen justifikatzen bada (egun hori barne), ordaindu beharreko dirulaguntza %10 gutxituko da.

–2020ko azaroaren 24tik aurrera aurkeztu bada, galduko da jarduketa horietarako eman zen dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

b) Dirulaguntzaren xedeko jarduketetan ez badira betetzen publizitate betebeharrak, ez da onartuko publizitate-euskarri horiei dagokion gasturik.

11. oinarria. Dirulaguntzaren bateragarritasuna eta de minimis laguntzen izaera.

1. Dirulaguntza hauek bateraezinak dira Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak jarduketa beretarako ematen dituen bestelako dirulaguntzekin.

Hala ere, bateragarriak dira helburu berarekin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako gainerako departamentuek, Espainiako zein atzerriko beste administrazio publiko batzuek edo beste edozein entitate publiko edo pribatu edota partikularrek ematen dituzten laguntzekin.

Beti ere, jarduera bererako emandako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du gainditu egin beharreko jardueraren kostua.

2. Deialdi honetako dirulaguntzak de minimis laguntzak dira, Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren xedea da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek de minimis laguntzei aplikatzeko modua (L 352. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24koa).

Erregelamendu horrekin bat, enpresa bakar bati hiru zerga ekitaldiko edozein alditan emandako de minimis laguntza guztien batura ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan. Aipatu erregelamenduen 2.2 artikuluan ezarrita dago enpresa bakarraren definizioa.

Horretarako, interesdunek kasuan kasuko zerga ekitaldian eta aurreko bi zerga ekitaldietan hartutako bestelako de minimis laguntzak aitortu beharko dituzte eskaera egiteko inprimakian.

12. oinarria. Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak Ogasuneko Ministerioaren Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez (<http://www.pap.minhfp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>), honako hauek adierazita: deialdia, laguntza zein aurrekontu kredituri egotzi zaion, onuradunak eta emandako diru kopurua.

Halaber, laguntzaren fitxan argitaratuko dira deialdi honen emaitzak.

13. oinarria. Oinarri arautzaile hauen aurkako errekurtsoa.

Oinarri arautzaile hauen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete interesdunek, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean.

F2010958

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

97C/2020 EBAZPENA, irailaren 25ekoa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, FCC Aqualia SA enpresaren lan hitzarmen kolektiboko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa erregistratu, gorde eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen duena, Mairagako Mankomunitateko ur hornidura eta saneamenduko instalazioen mantentze, zainketa, ustiapen, garbiketa eta konponketa zerbitzu publikoaren kudeaketarako kontratuari atxikitako langileentzat, 2018., 2019., 2020. eta 2021. (uztailaren 31ra arte) urteetarako.

Honako akordio honen testua aztertu da: FCC Aqualia SA enpresaren lan hitzarmen kolektiboko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa (kode zenbakia: 31006972011999) Mairagako Mankomunitateko ur hornidura eta saneamenduko instalazioen mantentze, zainketa, ustiapen, garbiketa eta konponketa zerbitzu publikoaren kudeaketarako kontratuari atxikitako langileentzat, 2018., 2019., 2020. eta 2021. (uztailaren 31ra arte) urteetarako. Akordioa 2020ko irailaren 3an sartu zen erregistro honetan, 2020ko abuztuaren 17an enpresaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak izenpetu zuten eta 2020ko irailaren 7an zuzendu zen, Langileen Estatutuaren Legearen testuategiaren onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 25ean.—Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia. Izaskun Goñi Razquin.

[FCC Aqualia SA enpresaren lan hitzarmen kolektiboko soldaten berri-kuspena, Mairagako Mankomunitateko ur hornidura eta saneamenduko instalazioen mantentze, zainketa, ustiapen, garbiketa eta konponketa zerbitzu publikoaren kudeaketarako kontratuari atxikitako langileentzat, 2018., 2019., 2020. eta 2021. \(uztailaren 31ra arte\) urteetarako](#) (PDFa).
F2011164

1.7. BESTELAKOAK

919E/2020 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ingurumenaren zuzendari nagusiak emana, ingurumen txosten estrategikoa egiten duena Berueten (Basaburua) turismoko kanpaleku bat jartzeko Plan Bereziaren gainean; sustatzailea Iban Pascual Matelo da.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 11ko 21/2013 Legearen 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, ingurumen ebaluazio sinplifikatuko prozeduraren menpe jartzen da Plan Berezi hori.

Plan Bereziak Basaburuko Udalaren hasiera bateko onspena du, 2019ko martxoaren 29ko bilkuran emana, eta jendaurrean jartzeko tramitea egin da, iragarki bat argitaratu ondoren 2019ko 84. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 2koan.

2019ko ekainaren 14an, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuan Plan Bereziaren dokumentazio osoa aurkeztu zen, ingurumen azterketa estrategikoa, memoria eta planoak biltzen zituen, eta hasiera eman zitzaion ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari.

Ingurumen Eraginaren eta Paisaiaren Atalak txostena egin zuen 2019ko abuztuaren 20an, ingurumen neurri batzuk txerta zitezen eskatzeko eta ingurumen ebaluazio sinplifikatuaren menpe jartzen zela adierazteko.

Ondoren, 2020ko otsailaren 3an, ingurumen agiria osatzeko informazioa aurkeztu zen.

Plan Bereziak xede du hirigintza-determinazioak ezartzea 12. poligonoko 548. lurzatiari, zeinak 21.154 m²-ko azalera baitu. Leku hori Berueteko herrigunetik hego-mendebaldean dago, Etzano alderdian, eta zuzeneko sarbidea dauka Etxanobideko bidetik. Belardiz inguratuta dago hala ekialdean nola mendebaldean, eta Aldatzeko bidetik datorren mendiko pista batekin egiten du bat eremuaren hegoaldeko mugan.

Plan Bereziaren eremua lurzati bakarrari dago atxikirik, alegia, 12. poligonoko 548. lurzatiari, zeinak 21.154 m²-ko azalera baitu. Leku hori Berueteko herrigunetik hego-mendebaldean dago, Etzano alderdian, eta zuzeneko sarbidea dauka Etxanobideko bidetik. Belardiz inguratuta dago hala ekialdean nola mendebaldean, eta Aldatzeko bidetik datorren mendiko pista batekin egiten du bat eremuaren hegoaldeko mugan.

Lurzatiak bi erabilera desberdin ditu gaur egun; belardi erabilera da nagusi (A azpilurzatia), eta baso-eremu txiki bat dago (2.250 m²) pistaren aldamenean. Proposamena honako zonakatzeko honekin bat garatzen da:

—A zona: 548A azpilurzatiko 8.812,86 m²-ko azalera du, Etxanobideko sarbidearen ondoan. Bertan proposatzen dira zuzkidura-erakina (443,98 m²), haurrendako jolasgunea, kanpaldirako eremua (10 partzela) eta 15 bungalow jartzeko 3 eremu. Sarreratik, noranzko biko bide bat abiatzen da, irteerarik gabea, kanpaldirako eremura doana. Oinezkoentzako bideen sareak partzelak eta bungalowak lotzen ditu zerbitzuen eremuarekin. Kasu bietan, bertako topografiaren arabera egokituko dira bideak, lur-mugimenduak ahalik eta gutxien izan daitezten. Sarbidearekin paraleloan, aparkatzeko 22 tokirako gune bat prestatuko da.

—B zona: A eta B azpilurzatietako 5.509 m²-ko azalera du eta mendiko pistarako sarbideak gertuen dago. Gune hori ingurune naturalarekiko harremana eta ikaskuntza laguntzera bideratuko da. Horretarako, prestatutzarako ikas-eremu bat proposatzen da (3.515,90 m²): fauna eta astronomia behatzeko prestatutako instalazio bat eta baserri txiki bat, bertan dagoen aterpe bat baliatuta. Bada, baita ere, baso partikularra izeneko eremu bat (548 B azpilurzatia, 2.249 m²), baina hor ez da jarduketarik aurreikusi.

Kanpalekuan, ur hornidurako, hondakin-uren arazketako eta elektrizitate hornidurako zerbitzuak behar adinakoak dira. Hornidura eta saneamenduko sareen konexioak Etxanobide bidetik egitea proposatzen da, eta 240 m inguruko azken zatia, 12. poligonoko 553. eta 507. lurzatiak belardiak gurutzatzen dituena. Sare elektrikoaren konexioa lurpekoa izanen da.

Kanpalekuaren diseinu eta antolamendurako hartutako neurri nagusiak, prebentiboak eta zuzentzaileak direnak, ondoko hauek dira:

—Itxitura perimetrala, eremua zedarritzeko, eta 3 metro zabaleko berdegune-banda bat, bertako zuhaitz eta zuhaixkez osatua.

—Erdiko eremu bat, 12 metro zabala, berdegunerako; haren bidez es-taliko da gutxieneko lerro topografikoa, ibarreko euri-urak bertatik igaro daitezten, eta debeku izanen da eraikuntza-elementurik paratzea bertan.

—Drainatze-materialak aparkalekurako eremuan.

—Gauko ingurunea babesteko neurriak.

—Energia aurrezteko sustatzen duten sistemak ezarriko dira.

Plan Bereziak eragiten dituen inpaktuak honako hauek sortzen dituzte nagusiki: lur-mugimenduek, luberritzeek eta erabilera berriak ezartzeko jarduketek, esate baterako bide- eta urbanizatzeko-lanek (A eremua) kanpalekua eraikitze eta ezartzeko fasean. Eragin horiek aldi baterakoak dira, eta itzulgarriak. Ustiatze fasean, eragin nagusiak loturik daude zirkulazioaren, giza joan-etorrien eta baliabide-kontsumoaren igoerari. Orobat, jarduera horrek eragin positiboa dauka ibarrean, bai gizarterako bai ekonomiarako.

Berueteko udalerrri osoa dago sarturik Belate Kontserbazio Berezikoko Eremuan. KBE gisa aitortu eta haren kudeaketa plana onesten duen azaroaren 5eko 105/2014 Foru Dekretuarekin bat etorritik, hiriguneak eta haien inguruak horren barruan txertatzeak KBE eremua zedarritzeko koherentzia-irizpideei jarraitzen die. Plan Bereziaren eremua Belate KBEren barruan dago; haatik, hirigune aldean eta lurzatiaren izan ohi den abeltzaintzarako erabilera berekin ekarri du KBEaren flora edo basafauna bereizgarriarentzako habitat naturalik edo interesguterik ez egotea. Hori dela-eta, Plan Berezikoko proposamenek ez dute eragin zuzenik KBEaren ezaugarri giltzarrietan, ez eta intereseko flora edo fauna ere.

Paisaiarengan duen eraginari dagokionez, inpaktua arina dela jotzen da, proiektuaren ezaugarriengatik eta aurreikusitako integrazio-neurriengatik (zuzkidura-erakina erdi-lurperaturik eta bideen diseinua luraren topografiari eta perimetrorako landareei egokiturik egingen da). Jarduketa Belate KBEaren barnekoa denez, bertako zuhaitzak landatuko dira, lizarrak (*Fraxinus excelsior*), ezkiak (*Tilia platyphyllos*), haginak (*Taxus baccata*), astigarrak (*Acer campestre*), hurrondoak (*Corylus avellana*) eta gaztai-nondoak kasu (*Castanea sativa*).

Arriskuei dagokionez, ez da atzeman gertuko ibilgu naturalik, eta hortaz, egoki jo da erdigunean kokatutako berdegunea euri-urak hartzeko erreserbatzea, prebentzio neurri gisa.

Ingurumen txostenak inpaktu arintzat baloratzen du ingurumenaren gaineko eragin globala; izan ere, prebentzio-neurriak hartu dira eremuaren plangintza eta antolamendua egitean, eta jarraipen eta zaintze neurriak, obra-faseari begira.

Natur Ingurunearen Zerbitzuak 2019ko urriaren 15ean egindako txostenak, sustatzaileari igorria, obra faserako eta jarduera ustiatzen denerako baldintza sorta bat biltzen du. Plan Bereziaren ezaugarriak eta inplikazioak ikusirik, ondorioztatu da proposamenak ez duela ondorio nabarmenik izan ingurumenean. Biodibertsitatearen Zerbitzuak adierazi du bete dela ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura, eta aldeko txostena eman du.

Adierazitakoarekin bat, eta honako hauek ematen dizkidaten esku-dantziak erabiliz: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 6ko 22/2019 Foru Dekretua, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoak ezartzen duen urriaren 23ko 258/2019 Foru Dekretua,

EBAZTEN DUT:

1. Ingurumen txosten estrategikoa egin da Berueten (Basaburua) turismoko kanpaleku bat ezartzeko Plan Bereziaren gainean, eta planak, Iban Pascual Matelok sustatuak, ingurumen ondorio nabarmenik ez duela jo da.

2. Plana ingurumen agirian ingurumena zaintzeko aurreikusi diren neurri eta jarraibideekin bat garatuko da.

3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Ebazpen hau Hirigintza Atalari eta Basaburuko Udalari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an.—Ingurumeneko zuzendari nagusia, Pablo Muñoz Trigo.

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

ARANGUREN

Deialdia, eskolazain izateko lanpostu bat, D mailakoa eta euskarazko C1 hizkuntza-eskakizuna duena, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Arangurengo alkateak, 2020ko irailaren 29an emandako 611. ebazpenaren bidez, honako hau erabaki du:

Arangurengo Udalaren zerbitzuko eskolazain izateko lanpostu bat, D mailakoa eta euskarazko C1 hizkuntza-eskakizuna duena, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 20an onetsi baitzuen, 2020ko 139. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 24an. Bada, deialdiko 4.1 oinarrian ezarritakoari jarraikiz, bidezkoa da izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onestea.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.–Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onestea. Hona hemen:

–Onartuak:

Deiturak, izena:

ABENTIN USUNARIZ, IBAI
AGUIRE AGUIRE, YOANNA
AJONA MARTINEZ, JOSEBA
AKERRETA RODRIGUEZ, XABIER
APERRIBAY MARTINEZ DE SAN VICENTE, ANDONI
ARALUCE GOÑI JOSEBA, ANDONI
ARETA GAZTAÑAGA, LUIS
ARMENDARIZ PLATON, MIKEL
ARNESTO BERRUEZO, ALFONSO
ARRIOLA ALONSO, AITOR
ARRIZBITA PEREZ, EDURNE
ASTRAIN OSES, PELLO
AZKUNE ETXABARRI, KOLDOBIKA
AZPILICUETA ROS, GAIZKA
BARBARIN LUCIA, LUIS FERNANDO
CESTAU ZUBIRI, AINHOA
CHOCARRO DE LA FUENTE, ARITZ
CIGANDA MURILLO, JOSEBA
CLEMENTE IDOATE, UNAI
CORONADO GONZALEZ, SONIA
DAVID IBIRIKU, PATRIZIA
DE GOÑI EGEA MARTIN, ALAIN
DOLARA IRISARRI, LORENZO
ECHEVERRIA MURUZABAL, JUNE
EKISOAIN TORRECILLA, JOSEBA
ELIZARI RIEZU, ARITZ
ESTEIRO AGUIREBENGOA, EDURNE
ETXEBERRIA MENDIA, MIKEL
FERNANDEZ CERRADA, IÑAKI
FERNANDEZ ILLANA, MARIA LORENA
FRAILE ITURRALDE, JORGE
GALLEGO BIURRUN, RUBEN
GARCES RUIZ, IRATI
GOIKOETXEA IRURTIA, F. XABIER
GOÑI GORRIZ MARIA, MERCEDES
GOYENECHÉ ISO, PATXI
HUARRIZ ADOT, JOSEBA
HUARTE NUÑEZ, CARLOS
IBÁÑEZ ANCIZU, ANDONI
INDA AIZPUN, MIKEL
IRACEBURU MURILLO, ALAIN
ITOIZ BURGUETE, REBECA
ITURRIA AMADOZ, IBAN
IZURZU ZABALZA, GORKA ARTIZAR
JUANIZ MORIONES, PATXI
LACASTA PEREZ-ILZARBE, FERMIN JAVIER
LARRAINZAR ERICE, SERGIO
LARRAÑETA MACAYA, EKAITZ
LARREA ZABALO, JOAQUIN
LASA OLACIREGUI, AITZOL
LEOZ AZNAREZ, SAIOA
LOPEZ DE VICUÑA LOPEZ, IZASKUN
LOPEZ RAYO, RAUL
LUSARRETA MONREAL, ANDREA
MACUSO MORENO, JULIA
MADOZ SALCEDO, AITOR
MAEZTU ARTEAGA, ANDER
MARTINEZ DE SAN VICENTE GARAYALDE, TXOMIN

MARTINEZ MACUA, JOSE RAMON
MARTINEZ SANTAMARIA, AMAIA
MIGUEZ MARTINEZ, AISER
MONREAL SANCHEZ, ASIER
MORIONES SANZ, JON ANDER
MUNARRIZ ANTONA, JULIA
OLLETA JIMENEZ, GORKA
PETRICORENA IRIGOYEN, TXOMIN
REKALDE PERALTA, KOLDO
RETA ERVITI, OLAIA
ROMERO LEATXE, EUNATE
ROMERO QUESADA, TOMAS
ROS ECHANIZ, MARIA ARANTZAZU
RUIZ ITURRALDE, MARIA AMPARO
SAGASTIBELZA BARAIBAR, ARANTZAZU
SALAS ARMENDARIZ, DIEGO
SALINAS URRUTIA, AGURTZANE
SUESCUN GONZALEZ, GORKA
TORREA GOICOECHEA, JOSU
URDIN SOLA, JAVIER
URIGUEN RUEDA, AISER
URKIOLA JIMENEZ DE VICUÑA, XABIER
URTASUN SANZ, ARKAITZ
URZAINKI BEORLEGI, LUIS
VILLARROYA OCHANDORENA, NAROA
ZALBA MARTINEZ, IÑAKI
ZARAUZ ARRUTI, ANGEL MARIA
ZUDAIRE LOPEZ, ARKAITZ
ZUÑIGA PEREZ DE URABAIN, GANIX

–Baztertutak:

1. GUILLEN ALVAREZ DE EULATE, IÑIGO
Gidabaimena falta da.

Izangai baztertutak erreklamazioak egin ahalko dituzte eta, okerririk egin baldin badute, horiek zuzendu, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hamar egun baliodunen barruan.

Bigarrena.–Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Mutiloan, 2020ko irailaren 29an.–Alkatea, Manuel Romero Pardo.

L2011293

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

ANTZIN

2020ko 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. aurrekontu-aldaketak.

Behin betiko onespina

Antzingo Udalak, 2020ko abuztuaren 12an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. aldaketak Udalaren 2020ko aurrekontuan.

Erabaki hori 2020ko 185. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 25ean.

Legez ezarritako epea iragan denez inork haien kontra erreklamaziorik eta/edo alegaziorik aurkeztu gabe, behin betiko onetsi dira.

1/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Gastua GOITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
4540-61900	Bideak	6.000,00
4590-62100	Bidezidorren memoria	2.000,00

Gastua BEHEITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
4320-62100	BTT ibilbideen proiektua	8.000,00

2/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Gastua GOITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
3420-6320003	Igerilekuetako altzariak eta makinak	5.000,00

Gastua BEHEITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
3420-2120001	Udal igerilekuetako mantentze-lanak	5.000,00

3/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Gastua GOITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
1640-6320001	Udal hilerria	3.000,00

Gastua BEHEITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
1532-61900	Zoladura eta sareak berritzea	3.000,00

4/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Gastua GOITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
3340-4820000	Kultur jarduerak	8.000,00
3340-4820005	Gazteendako jarduerak	2.850,00
4300-42300	Suspertu plana	15.000,00
2391-22706	Berdintasun plana	150,00

Gastua BEHEITITZEA:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
3380-2262001	Herriko festak	26.000,00

5/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

GASTUA goititzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
1650-63300	Argiteria publikoa berritzea	52.629,00

DIRU-SARRERA finantzatzeko du:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
1532-61900	Zoladura eta sareak berritzea	25.000,00
7508006	Dirulaguntza, despopulazioari aurre egiteko	16.518,00
7508005	Dirulaguntza COVID-19agatik	11.111,00

6/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

GASTUA goititzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
2318-22106	Farmazia-produktuak	4.000,00
2318-62500	COVID-19a ez kutsatzeko itxiturak	655,00
1650-22706	Energia auditoretza	2.500,00
16119-22706	Ihesak konpontzeko azterlana	2.770,00

DIRU-SARRERA finantzatzeko du:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
7508005	Dirulaguntza COVID-19agatik	9.925,00

Antzinen, 2020ko irailaren 30ean.–Alkatea, Isaac Corres López.

L2011359

ARGUEDAS

1/2020 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespena

2020ko 202. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 8an, 1/2020 aurrekontu-aldaketa hasiera batez onesteko erabakia. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuan egin aldaketa hori behin betiko onetsi eta argitara ematen da, behar diren on-dorioak izan ditzan; hori guztia, irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz (foru dekretu horren bidez garatu zen, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea).

1/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Aparteko kreditua

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
	GASTUEN egoera	Balio zenbatetsia- ren arabera
1-34200-6090001	Futbol zelaian soropil artifiziala ezartzea	557.070,80
1-34200-6090002	Proiektu teknikoa eta azterketa geotek- nikoa	19.965,00
GASTUA, GUZTIRA		577.035,80

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA (euroak)
	DIRU-SARREREN egoera	Balio zenbatetsia- ren arabera
1/8700000	Diruzaintzako gerakina gastu orokorre- tarako	577.035,80
SARRERA, GUZTIRA		577.035,80

Arguedasen, 2020ko irailaren 30ean.–Alkatea, José María Pardo Ayala.

L2011302

AZAGRA

Aldaketa, Agiriak luzatu eta tramitatzea arautzen duen ordenantzan. Behin betiko onespena

Jendaurreko epea inork erreklamaziorik aurkeztu gabe iragan denez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluan xedatuari jarraikiz, argitara ematen da Agiriak luzatu eta tramitatzea arautzen duen ordenantzako aldaketaren behin betiko onespena. Hori hasiera batez onetsi zuen Udalak, 2020ko ekainaren 15eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Iragarkia 2020ko 165. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 27an.

Ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespeneren kontra, hautara, honako errekurso hauek aurkez daitezke:

–Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

–Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabe-teko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita.

Azagan, 2020ko irailaren 23an.–Alkatea, Rubén Medrano Romeo.

TARIFEN ERANSKINA

–Arma-lizentzia eskuratzeko tasa: 10 euro.

L2010996

BARAÑAIN

10/2020 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespena

Barañaingo Udalak, 2020ko abuztuaren 27an egin osoko bilkuran, ha-siera batez onetsi zuen aurrekontu-aldaketa egiteko 10/2020 espediente-a, aparteko kreditua gaitzeko Barañaingo Udalaren aurrekontuan (2020ra luzatua), 2020ko aurrekontuko diruzaintzako gerakinarekin finantzatua.

Jendaurrean jartzeko eta alegazioen eta erreklamazioen epea irekitzeko iragarkia argitaratu zen 2020ko 202. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, irailaren 8an, eta Udalaren ediktuen taulan.

Hamabost egun balioduneko epea iraganik inork alegaziorik edo erreklamaziorik egin gabe, aldaketa behin betiko onetsitaz jotzen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hona hemen behin betiko onetsitako aurrekontu-aldaketa:

Aparteko kredituak gaitzea, diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak, guztira 223.200,00 euroko zenbatekoarekin, partida hauetan:

- 99 92001 62500 Ekipamendua COVID-19: 6.000,00 euro.
- 99 92003 64100 Programa informatikoak COVID-19: 7.200,00 euro.
- 99 23184 22699 Zenbait gastu COVID-19agatik: 40.000,00 euro.
- 99 34202 41000 Dirulaguntza Lagunak elkarteari, COVID-19agatik: 40.000,00 euro.
- 99 32611 41000 Dirulaguntza Musika Eskolari, COVID-19agatik: -40.000,00 euro.
- 99 43901 47900 Dirulaguntza bereziak merkataritzari, COVID-19agatik: 90.000,00 euro.

Kreditu-gehigarria gaitzea, diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak, 35.000,00 euroko zenbatekoarekin, 41 23181 48000 "Iarrialdi sozialeko laguntza ekonomikoak" partidari, Barañaingo Udalaren 2020ko aurrekontuan.

Argitara ematen da, aipatutako legeko aginduak betetzeko, eta ohartarazten da behin betiko onespén hau aurkaratzen ahal dela honako bide hauetako bat erabiliz:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2020ko irailaren 30ean.—Alkate udalburua, María Lecumberri Bonilla.

L2011381

BARAÑAIN

Deialdia, COVID-19ak sortutako egoeragatik tokiko merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren jardura ekonomikoari eusten laguntzeko ezohiko laguntza. Laburpena

Dirulaguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhfp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (Identif.): 526568.

Barañaingo Udalak 90.000 euro bideratuko ditu merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektoreetan aritzen diren pertsonen laguntzeko, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioek kaltetuta baitaude.

Barañainen, 2020ko urriaren 1ean.—Alkatea, María Lecumberri Bonilla.

L2011505

BASABURUA

2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespén

Basaburuko Udalak, 2020ko irailaren 30ean egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2020ko plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua xedatutakoari jarraituz, onetsitako plantilla idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun balioduneko, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Basaburuan, 2020ko urriaren 3an.—Alkatea, Esther Lakasta Perez Ilzarbe.

L2011508

BASABURUA

2020ko aurrekontua. Behin betiko onespén

Basaburuko Udalak, 2020ko uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran, behin betikoz onartu zuen 2020ko aurrekontua. 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluari jarrituz aurrekontu zehaztua argitaratzen da jarrian.

GASTUAK:

I. kapitula: 2312.455,77 euro.

II. kapitula: 199.610 euro.

III. kapitula: 1.500,00 euro.

IV. kapitula: 199.000 euro.

V kapitula: 5.000 euro.

VI. kapitula: 260.396,20 euro.

VII. kapitula: 12.200 euro.

IX. kapitula: 50.000,00 euro.

Guztira: 1.044.161,97 euro.

DIRU-SARRERAK:

I. kapitula: 259.000 euro.

II. kapitula: 53.000 euro.

III. kapitula: 61.100 euro.

IV. kapitula: 400.040 euro.

V. kapitula: 84.870 euro.

VII. kapitula: 192.890,17 euro.

VIII. kapitula: 6.000 euro.

Guztira: 1.056.900,17 euro.

Basaburuan, 2020ko urriaren 5ean.—Alkatea, Esther Lakasta Perez Ilzarbe.

L2011545

BERRIOBEITI

2020ko 7. eta 8. aurrekontu-aldaketak. Behin betiko onespén

2020ko 202. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 8an, 2020ko 7. eta 8. aurrekontu-aldaketak hasiera batez onesteko erabakia. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuan egin aldaketa horiek behin betiko onetsi eta argitara ematen dira, behar diren ondorioak izan ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

7/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Aparteko kreditua

Sortzen den gastuen aurrekontu-aplikazioa:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1510 21200	OBRA SUBSIDIARIOA 8. POL. 233. LURZATIA, LARRAGETA	50.000,00 euro
	GUZTIRA	50.000,00 euro

Honako kreditu beheititze hauen bidez finantzatuak:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1533 60903	ARTIKAKO PASABIDEA KONPONTZEKO OBRAK	50.000,00 euro
	GUZTIRA	50.000,00 euro

8/2020 AURREKONTU-ALDAKETA

Kreditu-transferentzia

Gastua goititzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1710 2279902	BERDEGUNEEN MANTENTZE-LANAK	20.000,00 euro
1 2110 16004	FAMILIA LAGUNTZA ETA MONTEPIOKO DEFIZITAREN KUOTA	26.500,00 euro
1 3420 21203	ARTIKAKO IGERILEKUAK-MANT.	3.500,00 euro
1 9120 1000003	TALDE POLITIKOENDAKO ZUZKIDURAK	3.000,00 euro
1 9200 21203	UDALAREN BESTE HIGIEZIN BATZUEN ZAINK.	2.000,00 euro
1 9200 2210001	UDALAREN HIGIEZINEN HORNIDURA ELEKTRIKOA	35.000,00 euro
1 9200 2220001	TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA	7.200,00 euro
1 9200 47900	KALTE-ORDAINAK ENPRESEI	2.200,00 euro

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1320 62301	SEGURTASUN KAMERAK INSTALATZEA	14.000,00 euro
1 3370 60901	HAURREN PARKEAK	4.500,00 euro
1 3331 62201	KULTUR ETXEA-ZENBAIT INBERTSIO	12.000,00 euro
	GUZTIRA	129.900,00 euro

Gastua beheititzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1533 60903	ARTIKAKO PASABIDEA KONPONTZEKO OBRAK	9.000,00 euro
1 3231 62201	HAUR ESKOLA, AIRE-GIROTZEKO OBRAK	40.000,00 euro
1 3410 22699	TXIRRINDULA ITZULIA	5.000,00 euro
1 3420 2210002	BERRIO. IGERILEK. TABERNA-HORNIDURA ELEKTRIKOA	6.000,00 euro
1 3420 2210102	BERRIO. IGERILEK. TABERNA-UR HORNIDURA	2.500,00 euro
1 3420 2210202	BERRIO. IGERILEK. TABERNA-GAS HORNIDURA	500,00 euro
1 3331 2210002	KULTUR ETXEKO TABERNA-HORNIDURA ELEKTRIKOA	500,00 euro
1 3380 2262001	HERRIKO FESTAK BERRIOBEITIKO UDALA	12.000,00 euro
1 3410 2260903	KIROL IKASTARO ETA JARDUERAK	10.000,00 euro
1 3269 2279903	GAZTERIARENDAKO JARDUERAK	4.000,00 euro
1 3410 2260901	KIROLAREN EGUNEKO OSPAKIZUNA	3.500,00 euro
1 3260 2279901	LUDOTEKA ZERBITZUA	8.000,00 euro
1 1533 60905	OBRAK, ARTIKAKO OINEZKOENDAKO PASABIDE GORATUETAN	28.900,00 euro
	GUZTIRA	129.900,00 euro

Berribeitin, 2020ko urriaren 5ean.—Alkatea, Raúl Julio Bator Pérez.

L2011521

CAPARROSO**13/2020 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespena**

